



I

Gure «Aitza» jatorrak
zer berri dakazki?
Lengoan irakurriko
zenioten noski;
mando bat ingura zaie
patata ta guzti
azitarako asko
ez dezute utzi,
arrane pikaruak
etzaudete gaizki.

II

Zeuen mando beltz ori
portatu zaizute,
gixadu jana ederki
gozatu dizute;
Deklarazioak ere
egin dizkizute,
makil ordeztantsua
eman zaiozute,
etzerate gizonak
iltzen badezute.

III

Zintzo inguratu da
zeuen salleraño,
janariz kargatuta
lepo ezurreraño;
politikarik ez dula
berak ornen diño,
paxiotar, rekete,
milla demoniño,
mando ori argiago
oiek denak baño.

(Eguna, 1.937-III-6)
Joxe Iñaxio Salaberria

KUKU

Kukuak kantazen dau
udabarrian pozez
zelai orlegian;
gizadia adi dauka
arrats-bera urdiñean
esku-lan artean.

Kantua eta lana
kukua ta gizona
lagun egin dira;
arrats-bera ez-tian
txoria ta gizona
besarkatu dira.

BILDOTS ZURIA

Bildots zuria dakar
artzaiñak besoetan
zelaitik etxera;
ardi ama begira
nork ostu ete dauktan
seme zorakorra.

Arrats-berau ba dator
ama bere ezkortara
biotzez antzizka;
ta ara bildotsa pozez
amarengana doa
esnea xurgaka.

PAULIN